

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



DANI BLANCO

Ipurbeltz

BELEA IKUSI eta muturra okertu, dena da bat. Zozoa naiz, bai horixe, eta zurikerietan saiatu arren, abilagoa naiz belzten orroa. Hizkuntzalariek deskribatze lane-tara mugatu beharko luketela pentsatzen duenetakoa naiz, eta hizkuntzaren eguneratze, berritze eta sortze lanak hitzunen eta sortzaileen mihi eta teklatuaren esku utzi beharko lituzketela. Hori hitz bidezko hizkuntza-ri dagokionez. Noski, dantzari ez. Hori beste kontu bat da. Dantzariak eta sortzaileak ezjakinak badira, ezin ba haien esku utzi gure hizkuntzaren –euskara badut aho hizkuntza, euskal dantza dut gorputz hizkuntza– bilakaera eta gain-behera.

Beleok sarri egiten diguzue orro ipurbeltz zozo koitaduoi. Euskal dantzak berri behar direla, eta edozein ergelkeria koreografiko atsegin dut batez *feisbukizatzen* diguzue. Alferrik da sasi-koreografia baten egiturazko ahuldade eta sortzezko bekatuak agerian uztea: “Sustrai eza, inkoherentzia koreografikoa, sintaxi okerra, itxurakeria eta hutsaltasuna, tradizioaren ezagutza ezaren goratzea”. Belearen plastakoak putzada batekin eraitsiko dizu gaztelua: “Ba niri gustatu zait. Zu tradizionalista zara”.

Zozo-aberrian edozein zozok edozein zozokeria asmatzea, eta horrela eraberritzeko hain premia larria duen euskal dantza zaharkitua eguneratzea, eraldatzea, birsortzea bikain iruditzen zaio beleari. Baina eutsi

ondo mokoa bele-aberrian sartzeko tentaldiaren aurrean. Euskararen eremua gauza serioa da, hamaika zaindari zinpekok, osok, urgazlek eta hooliganek babestua: “Mendikleta ez, hori ez dator bat hitz berriak sortzeko hizkuntz irizpideekin”. Eta *trash*. Edozein zozokeria proposatuz gero, Olasagastik letxe aizkoratuko zaitu beleak: “Tradizioan ez da inoiz horrela esan”. Eta kito. Kro, kro... Igela? Zozoa!

Tradizioa. Ja. Zozook erabateko ezjakintasunetik baztertu edo aldatu, eraldatu, berri, berrasmatu beharko genukeena lege ukiezina da ezagutza gainezka duen bele-aberrian. Zozo tradizionalista honek uste du euskal dantza berritzeko, eguneratzeko, sortzeko eta birsortzeko, euskal dantza bera, bere gramatika eta lexikoa, semantika eta morfologia ongi ezagutu beharko genukeela. Ez dugu ezagutzen, ez. Ezta

hurrik eman ere. Beleak uste du bele-aberrian euskararen adina ikertzen eta inbertitzen dela dantzan zozo-aberrian. Dantza ikertzen eta aztertzen dagoen zozo bakoitzeko mila bele daude euskara aztergai eta ikergai dutenak, unibertsitate, akademia, eskola, erakunde publiko, boluntario elkarte, enpresa profesional eta ongintzako fundazioetan. Zozo-dantzariak, onenera ere, atsoitiz eta kanta zahar batzuk ahots inpostatuz deklamatzerira iristen gara. Kro. ■

Beleak uste du bele-aberrian euskararen adina ikertzen eta inbertitzen dela dantzan zozo-aberrian



DANI BLANCO



Kattalin Miner

♦

KAZETARIA

Zifrak

ABUZTUAK ikara eragiteko moduko zifrak utzi dizkigu. Dakigunez, 47 ziren aurreko astean indarkeria matxistak utzitako gorpuk. Dakigunez, bortxatzeko grina maskulinizatuak ez du oporrik hartu. Badirudi inoiz baino lanpostu gutxiago dagoen honetan, gero eta langile gehiago hil direla, asko, gure azpiegitura horiek eraiki lanetan. Gazako arreba-anaien gorpuek Israelek itotzeraino murriztutako lur zati niminoetan lurperatzeko gaitasuna gairiditu dute. Siriako gorpuen zifrek gure adimenean hori bera liseritzeko gaitasuna gairiditu dute; kasik, ustelkeriaz hitz egiten digutenean aipatzen dituzten milaka miloi euroen zifren antzera.

Zifra dantzaren artean, haiek ulertu eta liseritzeko beste batzuk falta ditudala pentsatu dut. Zenbat kondena daude erailketa horiengatik? Zenbat bortxaketa ekiditea lortu dute hainbat andre? Zenbat diru irabazi dute langileak gorpu bilakatzen dituztenek? Zenbat bala eta bonba jaurti dituzte sionistek? Zenbat urte daramatzagu Ekialde Hurbila leher-tzen?

Zifra hutsak omen gara, baina jakin dezagun gutxienez zenbat garen eta zeren kontra dihardugun. Irabazi arte. ■

